


9. KOSTUEN EGITURA:

Gure enpresaren gastuak alderdi fisikorako eta birtualerako izango dira. Gainera, gure gastuak bi ataletan sailkatzen dira; finkoak eta aldagarriak:

- ***Finkoak:***

1. Enpresa bat kontratatzea aplikazioa programatzeko → hau izango da gastu handienetako bat, baina zaila da jakitea zein izango den azken prezioa, plataforma baten garapena 1.000 eta 200.000€ bitartekoa baita. Gure aplikazioak konplexutasun maila bat izango denez, sorkuntza-aldia luzatu egingo da, baina Android-en eta iOS-en azken bertsioetarako soilik diseinatuko da. Beraz, azken prezioa 35.000€ ingurukoa izango da. Azkenik, Nexia enpresa kontratatuko dugu.
2. Egile eskubideak (copyright) → 13,59€ urteko
3. Lokala → Ez da beharrezkoa ondo kokatutako lokal bat izatea, gure asmoa ez baita bezeroak zuzenean artatzea, ezta irakasleen ohiko ofizina ere. Beraz, bulego bakarreko lantokia izango da, grabaketa puntualetarako eta irakasle eta gure artean batzarrak egiteko balio izango duena; era berean, gure helbide fiskala izango dena. Horregatik, leku txiki bat alokatuko dugu, eta hilean 425€ ordainduko dugu. Hau jakiteko, merkatuaren azterketa bat egin dugu eta agertzen zaizkigun prezioak 400 eurotik 600 eurotara doaz. **[1]**
4. Behin lokala erosita, material hau erabiliko dugu apaintzeko:
Informazioa guzti hau, material bakoitzaren prezioan onarritu gara.
 - 4.1. Mahaiak eta aulkiak → 1.143€ (mahai bat eta sei aulki) + 45€ (mahai bat eta bi aulki atsedenaldirako) **[2],[3]**
 - 4.2. Kafe makina → 40€ **[4]**
 - 4.3. Hozkailu txikia → 180€
 - 4.4. Arbelak → 30€ x 15 = 450€ ingurukoa (arbel horietako bakoitza hamar irakasleei banatuko zaie, nahi duten tokitik graba dezaten. Bestalde, gainerako arbela Bilboko bulegoan jarriko da). **[5]**
 - 4.5. Arbeleko boligrafoak → 1,30€ x 4 x 14 = 72,8€ ingurukoa (4 boligrafo emango zaizkio). **[6]**



5. Eramangarriak edo portatilak → $250\text{€} \times 15 = 3.750\text{€}$ (bata irakasle bakoitzeko eta bestea guretzat)

6. Interneteko konexioa → Orange kontratatuko dugu hilean 20€ ordainduz, baina litekeena da urtean zehar prezioa igotzea.

7. Bideo-editorea → hau funtzio garrantzitsua da gure enpresan, izan ere, bideo asko erabiliko dira. Beraz, Vimeo Pro 16€ urteko erosiko dugu.

8. Hosting → gure material guztia hodei seguru batean gordeko da; horregatik, Danimarkako One.com enpresa kontratatuko dugu. Honek plan profesional bat eskaintzen du, 100 GB -ko disko-espazioa, hileko trafikoa mugagabea da eta domeinu baten truke $26,64\text{€}$ ordaindu beharko da urtean. Beraz, printzipioz, material guztia bildu eta igoko duen domeinu bakarra erosiko dugu, baina enpresaren aurrerapenaren arabera beste bat kontratatuko dugu edo ez.



- **Aldagarriak:**

9. Irakasleen soldata → akademiak duen bezero-kopuruaren araberakoa izango da. Prezio lehenetsi bat izango du, eta horri gehigarriak gehituko zaizkio bezero-kopurua 20 ra iristen denean. Prezio finkoa orduko 9€ izango litzateke; beraz, irakasleek hilean 900€ irabaziko dute gutxienez (14 irakasle izango dira, bi irakasgai bakoitzeko eta bat bai fisikan, bai kimikan).

1. Ura → $10\text{-}15\text{€}$ hileko (bulegoan ematen dugun denboraren arabera)

2. Elektrizitatea → $3,45\text{ kW}$ -eko potentzia kontratatuko dugu; beraz, hileko gastua 160€ ingurukoa izango da.



3. Publizitatea (eskuorriak eta paper informatzaileak) → urteko gastuak 100€ ingurukoak izango dira (lehenengo urtean behintzat), 15.000-20.000 eskuorri eta informazio-paper egingo baititugu. [7],[8]

Oharra: irakasleek liburutegi propioa eskatzen badute, bigarren eskuko testuliburuak erosiko dira.

Gure kostuen-egitura informazio iturri hauetan oinarritu da:

- [1] <https://n9.cl/qti2x>
- [2] <https://n9.cl/xfq5q>
- [3] <https://n9.cl/7t551>
- [4] <https://n9.cl/shbwh>
- [5] <https://acortar.link/fDCQqu>
- [6] <https://acortar.link/orwd6Q>
- [6] <https://acortar.link/T3xMeO>
- [7] <https://n9.cl/t5s98>
- [8] <https://n9.cl/eukj1>